

Konpromezurako bidea

Javier Rojo

"Besteen odola"
Simone de Beauvoir
euskaratzailea: Oier Alonso Etxebarria
Ibaizabal, 2001

Harrigarria da batzuetan zein azkar geratu diren zokoratuta garai batean belaunaldi baten mitotzat har zitezkeen idazleak. Hain aspaldi ez dela euskal literaturaren ardatz izan litezkeen gaiak eta ideak berriro gogoratzeko aukera ematen digu Simone de Beauvoiren "Besteen odola" izeneko nobela honek. Eta ziur nago, gure gizarteak erakusten duen mitofagiako joera kontuan hartuta, irakurle batek baino gehiagok halako nostalgia lotsatia sentituko duela irakurtzean. Izan ere, Euskal Herrian balaunaldi oso batek azken ondorioetaraino sinestu zuen liburu honek aurkezten dituen jarreretan. Gaur egun, nobela interesgarri bat baino ez dela ikus dezakegu. Bertan kontatzen zaigu Jean Blomart izeneko pertsonaiaren bilakaera 30ko hamarkadan eta naziek Frantzia okupatu zuten garaian. Erresistentziako ezkertiar borrokalaria izan arte eramango duen bilakaera honen ondoan, amodiozko istorio bat ere aurki dezakegu, protagonistak tragediaz eta itxaropenez ziprztindutako maitasunezko istorio batean lotuta ikusiko baitu bere burua. Orain, ziur aski, ezkertiar porrokatuenei baizik ez zaie onargarria irudituko nobelaren planteamendu ideologikoa. Beste irakurle batzuek denboraren iragateak sortzen duen nostalgia pairatuko dute.

El Correo, 2001-12-12